

HAUSNARTU SARIAK

Guraso erdaldunak ikastoletara hurbildu dituzten arrazoien ikerketa, saritua

 **SOZIOLINGUISTIKA** / Idoia Eraso

Hausnartu Euskal Soziolinguistika sarien X. edizioko lehen golardea irabazi du Urko Ikardo Enparanek «Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena Lapurdiko kostaldean» lanarekin. Euskal Herriko zein kanpoko pertsonak elkarriketatu ditu haurrak euskaraz matrikulatzeko arrazoiak ulertu nahian.

Soziologian lizen-
tziatua eta euska-
ra teknikaria da
Bortzirietan Urko
Ikardo Enparan.
Bi urtez Brusela-
ko Unibertsitate Libre franko-
fonoan egon zen soziolinguis-
tika masterra egiten, eta
ikastaro horren bukaerarako

egin zuen tesina da Hausnartu
saria irabazi duen ikerketa.
«Gaiari lotu nintzen nire lana-
rengatik eta interesengatik. Bi
interes gune ditut, gizarte
ikerketa eta euskararen nor-
malizazioarekin eta biziberri-
tzearekin lotutako gaiak. Eus-
kara teknikari gisa gure lana
horretan eragitea da, eta ho-

Sari banaketa Baionako Iker
zentroan egin zen,
otsailaren 8an. Hirugarren
saria Garikoitz Goikoetxea
Etxeberriak irabazi zuen
«Euskarazko hedabideen
kontsumoa Tolosaldean»
lanagatik, bigarrena Jon
Ander Kuartango Atxak
«Euskararen ofizialtasuna
Euskal Autonomia
Erkidegoko administrazio
orokorrean» ikerketagatik
eta lehena Urko Ikardo
Enparanek.
Isabelle MIQUELESTORENA

rretarako egoera ezagutu be-
har duzu, diagnostikatu eta
ikertu», azaldu du Urko Ikar-
dok.

Euskararen biziberritzean
guraso erdaldunek haien se-
me-alabak euskaldun egiteko
bidea hartzeak duen garran-
tzia hartu zuen kontuan iker-
lariak gaia hautatzean: «Jakin
nahi nuen zergatik Lapurdi
kostaldeko guraso erdaldun
batzuek eramaten dituzten
haien haurrak ikastolara».

Ipar Euskal Herrian bereziki,
familiarren baitan ematen den
euskararen transmisioa eten
egin da. «Horren aurrean, be-
rebiziko garrantzia dute hain-
bat aktore eta faktorek, irakas-
kuntza barne, eta horregatik
aukeratu dut hezkuntza siste-
maren baitan euskaldunak
sortzeko bidea».



«Hizkuntzari loturiko biografiak egin ditut, txikitatik euren familian hizkuntzekin eta euskararekin izandako harremanak, praktikak eta balioak jasoz»


Euskal nortasunarekiko atxikimendua, integrazioa eta euskararen balio praktikoa dira gurasoek seme-alabak Ikastolen Federazioan matrikulatzera eramán dituzten arrazoiak

Ikerketa honekin hainbat aurreiritzi apurtu nahi izan ditu Ikardok: «Pentsa daiteke guraso horiek daudela euskararengandik urrunen, horregatik aztertu nahi nuen zeintzuk diren etenaren kontrako bidea hartzeko arrazoiak, eta zergatik sartu diren berreskurapen logikaren barnean».

Hori ulertzeko eta horretan sakontzeko, gurasoen biografietara jo du, eta horretarako haien bizipenen berri lortzeko duten elkarrizketa luzeak egin ditu: «Hizkuntzari loturiko biografiak egin ditut, txikitatik euren familian hizkuntzekin eta euskararekin izandako harremanak, praktikak eta balioak jasoz. Bizitza berreraikitzen saiatu naiz erabaki hori nondik datorren ikusteko».

Transmisioaren gaia jorraztean ez-euskaldunek jokatu-tako rola ez dela behar bezala ikertua uste du egileak: «Erdaldun talde hori anitza da. Badira bertan sortuak direnak, eta euskara izan dutenak euren familietan aski hurbil, eta eurei euskara ez irakatsi izanagatik badute frustrazio, lotsa eta injustizia sentimendua. Horiekin batera baditugu batez ere Frantziatik etorritako erdaldunak; batzuek bertako bikotekidea dute, eta, beste batzuek ez, ez dute euskararekiko esperientzia hori izan».

Euskarara heltzeko esperientziak ezberdinak izan badira ere, bi kasuetan konstante batzuk badaudela nabarmendu du ikerleak: «Euskarara hurbildu dira neurri handi batean konpartitzen dituztelako harreman edo zirkulu batzuk euskaldunekin edota euskaltzaleekin. Bikote harremanen edo lagunarteen garrantzia handia da, baita beste manifestazio batzuenak ere, kultur ekimenak, festak edo lan giroa



Urko Ikardo, soziologoa eta euskara teknikaria. Isabelle MIQUELESTORENA

bera ere zenbait kasutan. Konpartitu dituzten momentu klabe batzuetatik heldu dira euskarara eta euskarazko irakaskuntzaren alde egitera».

Seaskak proposatzen duen ibilbide guztia bildu du, haur hezkuntzatik bigarren hezkuntzara bitarte. Hendaia, Ziburua, Donibane Lohizune, Biddarte, Biarritz eta Baionako ikasletoetako, Piarres Larzabal kolegioko eta Bernart Etxepare lizeoko gurasoak elkarrizketatu ditu. «Lapurdi kostaldean egin ditut elkarrizketak, gune urbano eta populatuena Ipar Euskal Herrian», azaldu du.

GURASOEN XEDE ETA ARRAZIOAK

Egindako hamasei elkarrizketetatik ateratako ondorioen arabera hiru dira gurasoek haien seme-alabak Ikastolen Federazioan matrikulatzera eramán dituzten arrazoiak: euskal nortasunarekiko atxikimendua, integrazioa eta euskararen balio praktikoa. Arrazoiak ematen dieten garrantzia aldatzen bada ere, hirurak aipatzen dituzte guraso guztiek.

Euskal nortasunarekiko loturak, «euskal identitatearekiko atxikimendua eta kultura horren parte sentitzea ekartzen du, euskara izanik horren elementu funtsezkoa». Zentzu horretan hautematen den jarrera azpimarratu du euskara teknikariak: «Identitatearen ikuspegi ez esentzialista horretatik, euskaldun egiten gaitu euskaraz egiteak; hizkuntza edo ikasketaren bitartez helzen gara gure kasuan euskaldun izatera, eta horrek eramán ditu hautu hori egitera».

Nortasunarekin lotuta, bertako pertsonengan bereziki atzeman zitekeen beste sentimendu bat ere nabarmentzen da: «Zenbait gurasoren esperientzian sumatu dut injus-

Urtetik urtera Ikastolen
Federazioak eskaintzen
duen murgiltze eredu
izena ematen duten
ikasleen kopuruak gora
egiten du. Ipar Euskal
Herrian ikasketak euskara
hutsean egiteko aukera
Seaskak soilik ematen du.
Gaizka IROZ



tizia sentimendua, eten dena josteko misioa. Hau da, beste batzuek zapaldu dutena berriz ere abian jartzeko nahia».

Arrazoi praktikoek ere garrantzia badute: «Aukera bezala kontsideratzen dira, hau da, kontuan izaten da euskarak balio dezakeela etorkizunean lanbide aukerak irekitzeko edo ikasketa ateak zabaltzeko». Haurraren garapenean izan dezakeen eragin positiboa ere agertzen da sarri: «Elebitasun goiztiarra adimenaren garapenerako oso positiboa dela azpimarratzen dute, bi hizkuntza txiki-txikitatik ezagututa aiseago egingo dutela hirugarren edo laugarren hizkuntza baterako jauzia».

Azken arrazoi multzoa integrazioarekin dago lotuta: «Euskara ikusten da seme-alabak bertakotzen lagun dezaken tresna bat bezala, eta hori gehienbat sumatu dut kanpotik etorritakoen diskurtsoe-

tan». Arrazoi multzo horren baitan pertsona batek Euskal Herri osoari begira izan dezakeen ekarpena ere aipatu zuen: «Bazegoen guraso bat Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko integrazioa aipatzen zuena ere».

«Erran nahiko nuke motibazio hauek presente daudela guraso guztien kontakizunetan, eta euren artean harremanetan daudela. Orokorrean ez nuke esango puru-puruan motibazio bakarra dagoenik», laburbildu du saridunak.

«Bertako zenbait gurasoren esperientzian sumatu dut injustizia sentimendua, eten dena josteko misioa. Hau da, beste batzuek zapaldu dutena berriz ere abian jartzeko nahia»

«Azterketan guraso erdaldunei buruz aritu naiz, horretan badelako zer ikertua. Baina horrek ez du esan nahi derrigor guraso horiek beste motibazio batzuk dituztenik»

Hiru multzo horiek agertzen badira ere oro har, nortasunari eta kulturari loturikoak denen ahotan asko agertzen dira, eta horrek orain arte egindako beste ikerketa batzuek ateratako ondorioak berresten dituela azpimarratu du ikerlariak. Guraso talde hau ez dela bereziki ikertua izan ere nabarmendu du, euskararen normalizaziorako oso garrantzitsua izanagatik.

Motibazioaren inguruan ñabardura bat egin du: «Azterketan guraso erdaldunei buruz aritu naiz, gaia pixka bat mugatzearen, eta horretan badelako zer ikertua. Baina horrek ez du esan nahi derrigor guraso horiek beste motibazio batzuk dituztenik». Aldi berean, heldu horien artean euskararekiko engaiamendua haien umeen hezkuntzatik harago doala ere egiaztatu du, haietarako batzuek euskara kurtsoak hartzen baitituzte adibidez.

Azken hamarkadan euskararen tokia Ipar Euskal Herriko gizartean anitz aldatu da, eta horrek ondorio zuzena izan du euskarazko hezkuntzaren matrikulazioaren gorakada handian. Horrek anitz aldatu du ikastolara bertaratzen diren gurasoen soziologia: «Guraso erdaldunen kategoria asko zabaldu da, eta denetarik egote horretan badaude erritmo ezberdinak eta inplikazio maila ezberdinak. Aniztasun handiagoa dago ideologikoki».

Horrek sentsibiltate politikoan izan dezakeen oihartzuna ere kontuan hartu du Ikar-dok: «Galdeketa egitera joan nintzenean gidoi batekin joan nintzen. Ideologia eta parte hartze politikoa oso lotuta daude horrekin, baina ez ziren bizitza kontakizunetan atera».

Hori bai, gurasoak hartutako erabakiaren pisuaren kontziente dira: «Guraso hauek guztiek euren seme-alabak



Lapurdi kostaldeko
ikastoletan gurasoen %25
dira erdaldunak. Ikardoren
ustez, erdaldunen
pertzepzioen inguruko
ikerketak gehiago behar dira.
Gaizka IROZ

ikastolara eramanda bat egi-
ten dute euskara biziberritze-
ko helburuarekin, eta kon-
tziente dira horretaz. Beharbada bide ezberdinetatik
heldu dira euskarara, espekta-
tiba eta ideia ezberdinak di-
tuzte, baina gutxi-asko denek
asumitzen dute euren eraba-
kia ez dela ondoriorik gabe-
koa, badakite erabaki indar-
tsua dela».

Hizkuntzatik harago Ikasto-
len Federazioaren hautuak
ekartzen dituen beste berezi-
tasunei buruz ere aritu dira
gurasoak, Seaskak indarrean
jarritako «sistema parte har-
tzailea eta hezkuntza huma-
nista» hautua egiteko arra-
zoien artean agertu baitira.
«Ez naiz sartu tratatzera zer
balorazio egiten duten Seaska-
ri buruz. Oro har nahiko posi-
tiboki tratatu dute; kritikak
egon badira, baina ez dira hel-
tzen joateko nahiera agertu ar-
te», baieztatu du soziologoak.

Elkarrizketekin batera, azter-
tutako zentroetan galdetegiak
ere egin zituen Ikardok, eta
bertatik ateratako emaitzek
aditzera ematen dute guraso-
en %25 inguru direla erdaldu-
nak, %15 euskaldun hartzaile-
ak eta %60 elebidunak. Aldiz,
elkarrizketak egiteko hautake-
ta ez zuen ehunekoetan oina-
rrituta egin; kanpoko eta ber-
tako pertsonen arteko oreka
bilatzen saiatu zen. Eta ikerke-
tak aurrera egin ahala, aldake-
ta batzuk egin zituen: «Hasie-
ran hamahiru elkarrizketa

**Lapurdi kostaldeko ikastoletan egindako
galdetegiak erakusten dute gurasoen %25
inguru direla erdaldunak, %15 euskaldun
hartzaileak eta %60 elebidunak**

**«Erdaldunen gaiak behar du ikerketa berezia,
erakarri beharreko taldea baita euskararen
galera etetea nahi badugu. Erdaldunei eta bere
pertzepzioei buruzko ikerketak behar dira»**

egin nituen, eta lehen unean
elkarrizketa pertsonal bezala
pentsatuta bazeuden ere, ba-
tzuk bikoteka egin nituen, el-
karrizketatuek horrela nahita.
Orotara hamasei elkarrizketa
egin nituen».

MASTERRA BRUSELAN

Gizarte ikerketan espezializa-
tutako soziolinguistika ikasta-
ro bat izan zen ikerketaren ja-
torria, bertan, aipagai den lana
bezalakoak egiteko tresna teo-
riko eta metodologikoak ikas-
tea zen helburua. «Horregatik
tesina nahiko potentea zen;
masterrak bi urte irauten zi-
tuen, eta, bigarrenean, denbo-
ra gehiena tesina prestatzeko
zen», azaldu du ikertzaileak.

Horrelako lanek egin deza-
keten ekarpena garrantzitsu-
tzat du Ikardok: «Erdaldunen
gaiak behar du ikerketa bere-
zia, erakarri beharreko taldea
baita euskararen galera etetea
nahi badugu; euskaldun be-

rriak nahi baditugu, xede tal-
dea da. Erdaldunei eta bere
pertzepzioei buruzko ikerke-
tak behar dira, euskararekiko
konpromisoa duten erdaldu-
nena».

Saria irabazteak ildo horre-
tan izan duen eragina ere ai-
patu du Ikardok: «Poz handia
jaso nuen, ibilbide luze baten
akabera zen nolabait. Baina
aitortza jasotzeaz gain, ikerke-
tarako aukera berriak eskain-
tzen dizkit, bultzada ematen
dit horretan jarraitzeko».

Etorkizunean zer gai azter-
tuko dituen galdetuta, lehe-
nik pausatzeko astia hartuko
duela adierazi du: «Baina ba-
ditut gai batzuk buruan, Ipar
Euskal Herriarekin lotuak,
baina ez soilik. Oso ideia zaba-
lak dira, hitzun berrien gaiari
lotuak; edo mugaz gaindiko
espazioari buruzkoak, inguru
horretan zer toki, balio eta di-
namika daukan euskarak, esa-
terako».